

PSIKOMOTRIZITATEA

Psikomotrizitateko saioen bitartez, haurren komunikazioa, mugimendua, harremanak eta emozioak indartu eta lantzen dira.

Haurra da protagonista eta gorputz mugimenduaren bitartez bere interes eta beharrak adierazten ditu. Hezitzailearen laguntzarekin, bere dimentsio psikofisiko, emozional eta sozialak garatzen ditu.

Haurrak jolastu egiten du, bere gisan, jolas librea da, horrela, haurrak bere barneko eta kanpoko mundua adierazten du sinbolikoki, beraz fantasia, beldurrak, zailtasunak, sormena eta abar azaldu eta lantzeko bidea da.

